

IDEIAREN JATORRIA

Batxilergoko bigarren mailako 4 gazteko taldea gara, aplikazioaren ideia gurea izan da eta proiektua aurrera atera nahi dugu. Taldean laurok lan egiten dugu modu aktibo eta etengabe. Enpresa txikia garenez, hasiera batean eskala txiki batean egingo dugu proiektua, baina arrakasta izanez gero, proiektua hedatzeko asmoa dugu.

Gizartean pentsatzen hasi ginen eta gaur egungo familien arazorik larriena beraien kokapen ekonomikoa da eta pentsatu genuen askok ezin dutela diruarekin ordaindu zerbitzuak baina bai beraien zerbitzuak eskaini beste batzuen truke. Hasieran bigarren eskuko produktuak saltzeko aplikazio bat egitea pentsatu genuen baina holako aplikazioak bazeudenez, trukatzeko aplikazio bat egitea bururatu zitzaigun. Horrela, progress aplikazioa asmatu genuen.